

**BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET
TECHNOLOGIQUE**

BASQUE

**ÉPREUVE ÉCRITE
DE LANGUE VIVANTE II**

SÉRIE L : 3 heures – Coefficient 4

SÉRIE S : 2 heures – Coefficient 2

SÉRIE STG (sauf CGRH) : 2 heures – Coefficient 2

SÉRIE STG option CGRH : 2 heures – Coefficient 3

**L'USAGE DES CALCULATRICES ET DU DICTIONNAIRE EST
INTERDIT**

**Il devra être composé, au choix, dans l'une des trois
langues du sujet.**

BARÈME DE NOTATION

<i>Compréhension du texte :</i>	<i>10 points</i>
<i>Expression personnelle :</i>	<i>10 points</i>

Ce sujet comporte 7 pages

Istorio hau aspaldi-aspaldian gertatu zen. Lurra oraindik ere ez zuten lantzen, eta basatia zen dena. Garai hartan, munduan bi izaki besterik ez zegoen : Jaungoikoa eta Deabrua. Behin, elkarrekin garia ereitea erabaki zuten.

5 Deabruak itxura gogor-gogorra zuen, indartsua ematen zuen. Jaungoikoa, berriz, ahula eta makala zen itxuraz. Hala ere, bera atera zen istorio honetan garaile.

Bada, garia erein zuten. Orain, arazoa uzta banatzea zen.

10 - Zein zati nahi duzu – galdetu zion Jaungoikoak Deabruari - , lurrean hazten dena ala airean hazten dena ?

Deabruak, luzaro pentsatu ostean, honela erantzun zuen :

- Lurrean hazten dena nahi dut.

15 Horrela, bada, uzta biltzeko sasoian Deabruak sustraiak hartu zituen eta jaungoikoak garauak. Jakina, Deabrua asko haserretu zen sustraiek ezertarako balio ez zutela ikusi zuenean.

Hurrengo urtean patatak erein zituzten.

- Zein zati nahi duzu ? – galdetu zion Jaungoikoak Deabruari.

20 Oraingoan, Deabruak zuhur jokatu nahi izan zuen. lazko eskarmentua¹ nahi ez zuenez, honela erantzun zion :

- Airean hazten den zatia nahi dut.

Noski, uzta biltzean Jainkoak tuberkuluak hartu zituen eta Deabruak hostoak, baliorik gabeko hosto pila bat. Berriz ere, Deabrua sutan jarri zen.

Hirugarren urtean, artoa erein ondoren, Jaungoikoak zera esan zion Deabruari :

25 - Tira, tira. Ez dizut ziria sartu nahi. Oraingoan zein zati nahi duzu ?

- Artoen mutur biak – erantzun zion Deabruak.

Artoa heldua zegoenean, Jainkoak artaburuak hartu zituen beretzat. Artaburuak, jakina denez, arto-lorearen mutur bien artean hazten dira. Horregatik, berriz ere, deabrua enbor eta hosto-zorroekin baino ez zen geratu.

30 Deabruak, haserre bizian, alde egin zuen. Ordutik aurrera Deabruak ez zuen inoiz lurra landu. Are gehiago, Lurretik aldendu zen, Jainkoaren trikimailu² etatik urrun. Gizakien arimak lapurtu eta infernura eramatea erabaki zuen. Horixe izan zen haren etxe berria : infernua. Eta horixe ere haren lanbidea : arima-lapurra.

Josu Lartategi – Deabruaren ipuinak – Aizkorri 1999

¹ Eskarmentu : lezio, esperientzia

² Trikimailu : arte, azpijoko

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE		
ÉPREUVE : BASQUE (Batua)		
11BSLSME1	Ce sujet comporte 7 pages.	Page 2/7

I. ULERMENA (10 puntu)

1. Zerk frogatzen du, narratzaileak dioen bezala, istorio hau aspaldi gertatu zela ? (L, S 2pts)
2. Zein dira ipuinean ageri diren hiru landareak? Zergatik zure ustez? (L 3 pts, S 2 pts)
3. Zergatik hiru landare hauek oraindik landugabeak ziren? (L, S 1pt)
4. Hasieratik bi pertsonaiak oso desberdinak ageri dira; zertan datza diferentzia hau? (L, S 2pts)
5. Azken finean zer zen Jainkoaren helburua? Lortua ote du? Zure erantzuna froga ezazu. (L 2pts, S 3pts)

II. ADIERAZPEN PERTSONALA (10 puntu)

S eta STG koek bigarren galdeari baizik ez diote erantzuten 15 bat lerrotan.

1. Jainkoa izaki ona, bihotz onekoa... dela esan digute edota irudikatzen dugu. Zer irudi du istorio honetan? Zergatik uste duzu zuk hori? (L 5pts)
2. Istorio honetan ezagutza edota informazioa izatearen garrantzia nabaria da. (Deabruak ez ditu landareak ezagutzen) Emango al zenuke gaur egun informazioa izateak ematen duen boterearen adibideren bat? (L 5pts)

Denbora hetan, errumes edo ijito familia baten karabanak, uda guziz bezala, feriakari heldu ziren eliza aintzinera eta han kokatzen. Bideetan zehar zabilan jendea kasta hori ez zen lekukoetaz hainbat maitatua, baina zaldi tratuetan ezagutuak zirenez eta gainera komertzio ganbaran fixatuak, nehork ez zeien deus trabarik egin nahi. Egia erran, ez ziren arras beti bideetan gaindi kurritzen, baina ingurumenetako merkatu eta feria guzietan parte hartzen zuten edozoin tratularien gisa, eta beren bizi moldeak bitxia izan gatik, partikulazki beztimendu eta mintzaira mailan, herabeki onhartuak ziren zaldi edo kabala mota zerbait erosten zuten ber. Biziki pobreak emaiten zuten, iduriz bakarrik, zeren eta ongi kasu egiten zelarik beren ontasunak gordetzen bazituzten ere, kurritzeko kamioi eta berebilak arras distirant eta berriak zituzten, denbora hetako marka hoberenetako arnesen barnean agertzen zirelarik harro eta bufant. Beren urguilua zen iduripenezko pobretasun baten azaltzea hobeki enganatzeko lekuko xalantak.

Jendeen ongi etorriak, herabea izan gatik, bazuen ere beste arrazoin bat: karrosaz ibiltzen zen familia hartan bazen emazte zahar bat, Maritza deitua eta famatua iragarkile edo azti bezala. Europa ekialdeko erresuma eslaboetarik zetorren omen, han ainhitz aztiantza ikasirik, bai eskuetako marretan geroaren irakurtzen, bai ezbehar edo eritasun xume zonbaiten sendatzen, otoitz bitxiak murmurikatuz, hango mintzaira eta egin moldeak nahastuz. Gelditzen zen leku guzietan bisitak egiten ziozkaten goizetik arrats artino, berak konsultak deitzen zituenak, bere burua ezin besteko mediku batentzat aukala.

Arñot ttipia, bere hamar urteekin, errumes edo erromanixel tropa hartako haur gehiena zen, bost anaia zituela, bi emazte eta lau gizonezkoez osatutako familia hartan (...)

Aberastasunez ez bazen harro gure putikoa, gogoia erne zaukan, begiak xorrotx eta izpiritua kurios. Bere haurzaroa osoki bere ugazama Maritzarekin iragana zuen eta eskolara joateko partez, irakaskuntza ezin hobea egiten zuen sorgin zaharrarekin. Maritzak, gure putikoa biltzen zuen berekin karabanaren barnera, mutil ttipi gisa, hau edo hura eginaraziz, bere eskupean atxikiz, xerbitxu ainitzen eskaera asebeste ziezaion. Eta « konsulta » denbora guzian han egoiten zen, xoko batean erdi gordea, ez baitzen entzunak eta ikusiak galtzera uztekoan.

Thikoipe, *Hotz bero*, (2007)

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE

ÉPREUVE : BASQUE (Navarro Labourdin)

I. ULERMENA : Galdeei erantzun iezaiezu testuan oinarrituz : (10 puntu)

1. Errumes jendea zertara etortzen zen ? (2pts)
2. Zer dakizu beren bizi moldeaz? (2pts)
3. Narratzailearen iduriko pobreak ala aberatsak ziren?
Froga ezazu. (2pts)
4. Zer dakizu Maritzaz? (2pts)
5. Arñot ttipiak nola iragaiten zituen egunak? (2pts)

II. ADIERAZPEN PERTSONALA : 15 bat lerro galdera bakoitz. S eta STG sailekoek 2. gaiari erantzunen diote. (10 puntu)

1. "Jende kasta hori ez zen lekukoetaz hainbat maitatua" dio narratzaileak. Zure iduriko zergatik? (L 4pts)
2. Maritza aztiak "konsultak" egiten ditu nahiz ez den medikua. Zure iritzia emazu horrelako jardunaldiaz? (S 10pts ; L 4pts)
3. Zer pentsatzen duzu Arñot-en eskolatze izaiteko moldeaz?(L 2pts)

14-18 ko gerla

« Agur deiat Maule alteti, agur Orhiko bortüa,
Bedatseak igaraitean kentü deik motto xuria ;
Hürrüntik ere boztario diat hire ikustea,
Beitakit hire aldepean dela ene sorleküa.

5 Haritxa ez hiz zotükatü³ hi sortü leküti,
Hantxe gure etxe xaharra, aldian bi borda xuri;
Begiak jarri zaizt errada, dütüdanean ikusi,
Partitü nintzan leküala bazterrek naüe urtuki.

10 Esker honak deitzat, Armada, hik egin deitadak honki,
Ene gaztetarzün ederra eman deiat maleruski;
Estropiat ezari eta igorri naük epantxüti⁴,
Etxekoen karga naük ützi pentsione txar bateki.

15 Lau urt' et' erdin bürüan dütü etsaiak armadak pausatü,
Foch-ek egin kondizione güziak dütü honartü;
Orai badügü bitoria bai eta aski espantü,
Bena hilak ez arrapiztü, ez estropiatak sendotü.

20 Ama ere ber abiseko, aitag zeitan proposatü,
Anai galdüaren leküa etxen nahi nüanez hartü;
Infirmitaten kausaz ez düt eskenia ez honartü,
Eta nonbait ahal lekütan ene ogia txerkatü.

Zerbait ikas nirokiala⁵ orano üdüri zeitan,
Eta korajez ontsa munta aprendiz partitü nintzan;
Madikatü gerlaren kausaz holaxe niz adin hontan,
Zola-zolatik arrahasle hogeita hamar urtetan.“

Jean-Baptiste Borthiry - 14-18ko gerla - 1919

³ Zotükatü: mugitu

⁴ Epantxü: traba

⁵ Ikas niroke: ikas nezake

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE

EPREUVE : **BASQUE** (Souletin)

11BSLSME1

Ce sujet comporte 7 pages.

Page 6/7

I. ULERMENA (10 püntü)

1. Lehen bertsetean, nola mintzatzen zaio narrazalea Orhiko bortüari? Zure ustez, zoin herritako da narrazalea? Zure ihardespena froga ezazü. (L 2pts, S 3pts)
2. Bigerren herrokako metaforak zer erran nahi dü? (L 1pt, S 2pts)
3. Hirugerren koblaren hatsarrean, nolako doinüa egarten dü narrazaleak Armadaz elestatzeko? Zer da beraz Armada beretako? (L, S 2pts)
4. Zer agitü ote zaio idazlearen sortetxeko premüari? (L, S 1 pt)
5. Zerk erakusten dü idazleak orano esperantxa badüala.? (L, S 2pts)
6. Egizü bertset horien llabürpena, hitz laxoan, 8/10 lerrotan. (L 2pts)

II. ADIERAZPEN PERTSONALA (10 püntü)

Les candidats des séries S et STG répondent uniquement à la seconde question en une quinzaine de lignes.

1. Lehen Mündü gerla Gerla Handia bezala ezagütürik da ere. Zergatik zure ustez? Zer badakizü gerla hortaz eta Eüskal Herrian üken dütüan ondoramenetzaz? Ahatzerik dea egünko egünean? (L 5pts)
2. Gorka Knorr kantari ezagünak kantore bat idatzi züan gerlaz: "Azken agurraren negarra". Zati batetan honela dio:
"Morts pour la patrie
Morts pour la patrie
Eskuara baizik
Etzakiten haiek
Morts pour la patrie."
Zer diozü bertset hortaz? Nola esplikatzen ahal düzü? Zure iritzia azaldüko düzü. (L 5pts ; S 10pts)

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE

EPREUVE : **BASQUE** (Souletin)

11BSLSME1

Ce sujet comporte 7 pages.

Page 7/7